

Etika Publikorako Batzordea

Gaia: 01/2026

**ERABAKIA, ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARENA, _____ JAUNAK/ANDREAK
_____ARENZAKO ZUZENDARI _____ JAUNAREN/ANDREAREN AURKA AURKEZTUTAKO
SALAKETARI BURUZKOA; SALAKETA _____ LANPOSTUA BETETZEKO PROZEDURARI
BURUZKOA DA.**

1.- 2026ko urtarrilaren 14an, _____ jaunak/andreak etikaren arloko salaketa/kexa bat aurkeztu zuen Etika Publikorako Batzorde honetan (EPB), _____ arentzako zuzendari _____ jaunaren/andrearen aurka. Izan ere, haren ustez, Etika eta Jokabide Kodeko zenbait printzipio eta jokabide urratu zituen _____ lanpostua (_____ kodea, _____ dotazioa) deialdi publikoan izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko prozeduran.

2.- Salaketaren oinarria, funtsean, hau da: prozedurako justifikazio-memorian jasotako baieztapen jakin batzuen ustezko egiazkotasunik eza; parte hartu duten hautagaien hizkuntza-gaitasunei eta gaitasun profesionalei buruz egindako balorazioa, eta lanpostua betetzeko prozesuan egindako elkarrizketen garapenari buruzko zenbait alderdi.

3.- Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuari jarraituz, batzorde honek txosten bat aurkezteko eskatu zion salatuari, eta hark alegazio-idazki bat aurkeztu zuen. Salatuak, idazki horretan, egindako akusazio guztiak errefusatu zituen eta prozedurako jarduketak zuzenak izan zirela adierazi.

Salatuak txostenean azaldu du duen erantzukizun bereziagatik eratu zela lanpostua izendapen askeko lanpostu gisa, eta konfiantza profesionala izan zela —organo eskudunaren iritzia arabera baloratzekoa bera— lanpostua betetzeko parametro erabakigarria; eta zehaztu du bi elkarrizketa egin zirela, bakoitza lanpostuaren eginkizunak ezagutzen zituzten bi pertsonak egina, eta bigarrena hiru bloketan egituratuta, eta azken blokekoa, hain zuzen ere, hainbat kasu praktiko ebaztea izan zela.

4.- Bi aldeek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, batzorde honek erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

I.- AURREKARIAK

1.- Etika eta Jokabide Kodea, lehenik, 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta, gaur egun, 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota dago. Kodearen helburua da erakundeen integritatea sustatzea, herritarrek erakunde publikoetan duten konfiantza indartzea eta kodeari atxikitako kargudun publikoen eta haien parekoen jarduna gidatu behar duten balioak, printzipioak eta jokabide-jarraibideak ezartzea.

2.- Kodea balio eta printzipio batzuen inguruan ardaztuta dago. Hauek dira balioak: integritatea; bikaintasuna; politika eta kudeaketa bat etortzea; lidergoa, eta berrikuntza. Hona printzipioak: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

3.- Etika eta Jokabide Kodearen 16.3.1.e) apartatuan, batzorde honi esleitzen zaio kodean bertan jasotako balio, printzipio eta jokabideetan izan daitezkeen ez-betetzeei buruzko salaketak eta kexak jaso, aztertu eta ebazteko eskumena.

4.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak (ekainaren 26ko 1/2014 Legea) osotasun publikoko sistema instituzional bat eratzen du, erantzukizun publikoak objektiboki, inpartzialki eta gardenki betetzen direla bermatzeko.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Hau da batzorde honi aurkeztu zitzaion eta aztertu behar zuen gaia: zehaztu behar zuen ea _____arentzako zuzendariak Etika eta Jokabide Kodeko balio, printzipio edo jokabideen aurka jokatu duen izendapen askeko lanpostu bat betetzeko prozedura batean.

2.- Salatzailleak uste du zuzendariak urratu egin zituela integritate-, zintzotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta erantzukizun-printzipioak, eta zalantzan jartzen ditu hala justifikazio-memoriaren edukia nola aurkeztutako hautagaiei buruzko balorazioa eta egindako elkarrizketen garapena.

3.- Aldez aurretik adierazi behar da batzorde hau ez dela administrazio-prozedurak berrikusteko instantzia bat, ez eta Administrazio Publikoak emandako administrazio-egintzak legezkoak direla kontrolatzeko organo bat ere.

Administrazioko eta jurisdikzioko organo eskudunei dagokie lanpostuak betetzeko prozedurak zuzenbidearekin bat datozen, behar den bestean arrazoitu diren, egindako balorazioak zuzenak diren edo prozeduran akatsik dagoen baloratzeari.

Hala adierazi du behin eta berriz batzorde honek. Zehazki, 2/2025 Erabakian —postu bat izendapen askeztatzeko prozedura baten azalpen-memoriari buruzko kexa baten ingurukoa bera— gogora ekarri zen batzordearen zeregina ez dela administrazio-jarduketaren legezkotasunari buruzko irizpenak ematea, ezta gai horietan eskumena duten organoen irizpidea ordeztzea ere, baizik eta kargudun publikoaren jokabidea kodean bildutako balioen, printzipioen eta jokabideen kontrakoa den aztertzea.

4.- Beraz, batzorde honen berezko eginkizuna hau zehaztea da bakarrik: salatutako egitateetatik segitzen al den zantzu nahikorik badagoen salatutako pertsonak Etika eta Jokabide Kodeko balioak, printzipioak edo jokabideak ez dituela bete esateko.

5.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ondorioztatzen da aldean artean dagoen eztabaida, funtsean, izendapen askeko prozedura baten esparruan egindako balorazioari eta deitutako lanpostua betetzeko hautagaien egokitasun profesionalaren balorazioari buruzkoa dela.

6.- Espedientean dagoen dokumentazioak agerian uzten du, halaber, bertsio kontrajarriak daudela egindako elkarrizketen garapenaren zenbait alderdiri buruz. Hala ere, desadostasun horiek izate hutsak ez du berez biderik ematen egiaren aurka nahita jardun dela ondorioztatzeko eta Etika eta Jokabide Kodean aurreikusitako zintzotasun- edo egiazkotasun-betebeharra ez dela bete iritzeko. Horri dagokionez, komeni da zehaztea salatzailak aipatzen duen betebeharra ez dela kodearen 12.b) apartatukoa —kargudun publikoaren curriculumeko, titulazioetako eta esperientziaren inguruko datuak faltsutzeko edo horien gainean gezurra esateko debekuari buruzkoa—, baizik eta zintzotasun-betebehar orokorra, 11.6 apartatukoa, zeinaren arabera kargudun publikoak egiazkotasuna eta sinesgarritasuna transmititu behar baititu, eta ez engainura jo. Bada, kasu praktikoen existentziari buruzko eztabaidari dagokionez, salatuak bigarren elkarrizketan planteatu ziren kasuen deskribapen zehatz bat aurkeztu du txostenean, eta hori bat dator justifikazio-memorian bertan jasotako aipamenarekin; beraz, bertsio kontrajarrien aurrean, eta salatuak egiaztapen-printzipio bat duenez, ezin zaio egotzi errealitateari buruzko faltsutze kontzienterik, eta, beraz, ezin zaio egotzi egiazkotasun-betebeharra urratu duenik.

7.- Era berean, merezimenduen, lanbide-gaitasunen edo izendapen askeko lanpostu bat betetzeko gaitasunen balorazioari buruzko desadostasunean ez dago berez Etika eta Jokabide Kodean jasotako printzipio etikoen urraketarik. Hain zuzen ere, batzorde honek 2/2025 Erabakian adierazi zuen bezala, elkarrizketen balorazioan, baita curriculumaren balorazioan ere,

baloratzeko tarte bat dago beti, baina horrek ez du esan nahi erabakia behar den objektibotasunarekin eta inpartzialtasunarekin hartu ez denik. Organo eskudunak baloratu behar du, bere iritzia araber, hautagaiak lanpostuaren baldintzetara zenbateraino egokitzen diren, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioei jarraituz, eta, elkarrizketan erakutsitako ahozko hizkuntza-gaitasuna baloratzeko ere, izendapen askean berez dagoen balorazio-tarte horixe dago, eta horren emaitzari buruzko desadostasunak ez du arbitrariotasunik edo faboritismo salatz.

8.- Bestalde, ez da elementu objektiborik aurkeztu interes-gatazkak, mesede-tratuak, onura partikularrak edo nahitako partzialtasuna salatzen dituenik, edo salatutako pertsonari eska dakizkiokeen osotasun-, inpartzialtasun-, objektibotasun- edo eredugarritasun-printzipioekin bateraezina den jarduketaren bat izan dela ondorioztatzeko inolako zirkunstantzia salatzen duenik. Hemen, 1/2024 Erabakia gogorarazi beharra dago: batzorde honek ezin du kodearen inongo urraketarik ikusi salaketa egiten duenak ez badu froga-elementurik aurkezten, eta, jokabide jakin batzuek agian abstraktuan inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioak arriskuan jartzen badituzte ere, horiek zehazki egiaztatu behar dira gaitzetsiko badira, eta hemen ez dira egiaztatu.

Azkenik, gehitu behar da salatzaileak eskatutako neurria eskatzeko —kargutik berehala kentzekoa— urraketa modu frogagarrian egiaztatuta egon behar duela, kodearen 16.3.2 apartatuaren babesean, eta neurria gertakariaren larritasunaren, eragin publikoaren eta hark irudi instituzionalean duen eraginaren araber egokitzen dela. Halako egiaztapenik ez dagoenez adierazitako moduan, asmoa, gainera, neurrigabea da, argi eta garbi.

9.- Aztertutako dokumentaziotik ere ez da segitzen zantzu nahikorik dagoenik hartutako erabakia interes publikoarekin edo betetako hornidura-prozeduraren berezko helburuekin zerikusirik ez duten arrazoiei zor zaiela ondorioztatzeko.

10.- Horren ondorioz, batzorde honen ustez, salatutako egitateek adierazten dute desadostasunak daudela izendapen askeko administrazio-prozedura baten emaitzaren eta motibazioaren inguruan, baina aurkeztutako dokumentazioak ez du frogatzen ez-betetze etikorik dagoenik, Etika eta Jokabide Kodea urratu dela irizteko arrazoi izan daitekeenik.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA

Lehenengoa. - Ezespina ematea, gaiaren funtsa aztertuta, _____ jaunak/andreak _____ arentzako zuzendari _____ jaunaren/andrearen aurka aurkeztutako salaketari.

Bigarrena. - Aditzera ematea dokumentazioa aztertu dela eta ez dagoela zantzu nahikorik Etika eta Jokabide Kodeko balioak, printzipioak edo jokabideak urratu direla ondorioztatzeko.

Hirugarrena. - Gogora ekartzea Etika Publikorako Batzordea ez dela administrazio-prozedurak berrikusteko instantzia bat, ez eta administrazio-egintzen legezketasuna kontrolatzeko organo bat ere; eginkizun horiek eskumena duten administrazio- eta jurisdikzio-organoei dagozkie.

Laugarrena. - Jarduketak artxibatzea, erabaki hau interesdunei jakinarazi ondoren.

María Ubarretxena Cid
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 23a